



Kanalak

Gure proiektuaren xede nagusia da baliabide inklusiboak eta irisgarriak eskaintzea aniztasun funtzionala duten pertsonei eta haien ingurukoei. Horretarako, gure produktuak eta zerbitzuak bezeroengana iristeko hainbat banaketa eta komunikazio kanal erabiliko ditugu. Kanal hauek aukera emango digute publiko zabal eta askotarikoa modu eraginkorrean heltzeko, bai online, bai offline.

1. Kanal digitalak (online)

- Webgune propioa, gure salmenta kanal nagusia

Gure web orria izango da bezeroek produktuak zuzenean eskuratzeko bidea. Bertan, honako hauek erosiko dituzte: liburu sentsoorialak, braillez idatzitako liburuak, piktogramak, jostailu egokituak eta baliabide didaktiko digitalak. Webgunea guztiz irisgarria izango da, kontraste egokiekin eta nabigazio errazarekin.

- Produktuen katalogo digitala eta deskargak

Bezeroek gure materialak erraz ulertu eta konparatzeko, deskargatzeko moduko katalogo eta lagin digitalak eskainiko ditugu (PDF, piktogramen fitxak, material didaktikoen adibideak). Honek konfiantza eta gardentasuna sustatuko ditu.

- Eduki digitalen harpidetzak

Gure webgunean hileko edo urteko harpidetzak eskainiko ditugu: piktograma bildumak, ariketa didaktiko irisgarriak, jolas digital inklusiboak eta hezkuntza gidak gurasoentzat eta irakasleentzat. Hau da gure kanal digital egonkor eta errepikakorra, bezero fidelizatuak sortzeko.

- Marketing digitala: sare sozialak, email marketinga eta bloga

Sare sozialen bidez (instagram, tiktok, youtube...), posta elektronikoko buletinak eta gure webguneko bloga erabiliko ditugu gure komunitatea informatzeko, produktu berriak erakusteko eta inklusioari buruzko sentsibilizazioa sustatzeko.

2. Kanal fisikoak (offline)

- Posta eta mezularitza bidezko bidalketak (zeharkakoa)

Gure produktuak online erosten dituzten bezeroei modu seguruan eta azkar entregatuko dizkiegu. Honek aukera ematen du gure produktuak edozein tokira iristeko, baita eremu rural edo isolatuetara ere.

- Elkarte eta erakundeekin lankidetzak (zeharkakoa)

Garrantzi handiko kanal fisikoa izango da inklusioarekin eta aniztasun funtzionalarekin lotutako erakundeekin lankidetzak sortzea (ONCE, down syndromearen elkarteak, CRI, TEA elkarteak, desgaitasun fisiko eta sentsozialeko elkarteak). Erakunde hauek gure produktuak erabiltzen, gomendatzen eta erabiltzaileengana hurbiltzen lagunduko dute

- Hezkuntza zentro eta instituzioei salmenta (zeharkakoa)

Gure materialak eskolek, hezkuntza bereziko zentroek, elkarteek eta udalek erosi ahal izango dituzte (multzo erosketak eginez eta material digitalerako lizentziak eskuratuz). Kanal honek egonkortasuna eta presentzia instituzionala emango du.

- Azokak, jardunaldiak eta ingurune espezializatuak

Hezkuntza, irisgarritasuna, inklusioa eta jolasteko produktuei lotutako azoka eta ekitaldietan parte hartuko dugu. Horien bidez gure produktuak fisikoki probatu ahal izango dituzte, gure markaren ikusgarritasuna handituko da eta lankidetzak berriak sortuko dira.